

## BAZENEKIEN...


...etxeko argiztapenak **etxebizitza bateko elektrizitate kontsumoaren %18a** suposatzen duela.




...bonbilla baten potentzia (W) ez dela emandako argi kantitatearen baliokidea, **watta potentzia unitatea da eta argiak bere neurri-unitatea dauka, "lumena"**. Beraz, 100 W-ko bonbilla batek ez luke 20 W-ko bonbilla batek baino argi gehiagorik eman beharko.

...**bonbilla goriek kontsumitzen duten energia elektrikoaren %5 aprobetxatzen dutela soilik argiztapenean**, gainetarako %95a berotasunean bihurtzen da, argi ustiapenik gabe.

...**faltsua dela fluoreszenteak eta kontsumo gutxiko bonbillak piztuta utziz, piztu eta itzali baino energia gutxiago kontsumitzen dutela**, hobe da argia behar duzun bakoitzean piztea eta gela usterakoan itzaltzea. Bonbillen bizitza erabilgarria lasterrago agortzea gerta daiteke, arazoa konpontzeko LED bonbillak erabil ditzakezu.

**Eros daitezkeen ohiko bonbillen argi-etekina eta bizitza erabilgarriak:**



Bonbilla mota	Potentzia (W)	Argi fluxua (lm)	Argi-etekina (lm/W)	Bizitza erabilgarria (h)	Kontsumoa (€/1.000h)
Goria 	60	710	11,83	1.000	7,45
Halogena 	50	845	16,9	2.000	6,58
Fluoreszentea 	20	1650	82,5	24.000	2,48
Kontsumo baxukoa 	18	1215	67,5	12.000	2,23
LED 	12	806	67,17	30.000	1,49

## KONTSUMO ZENTZUDUN BATERAKO IDEIAK:

1. Zure etxeko bonbillak errebisatzeko denbora hartu, eraginkorragoak eta iraupen handiagokoak direnengatik **aldatu hondatuz doazen heinean**. Denbora luzez piztuta egoten direnetatik hasi.
2. **Pantailak, tulipak eta bonbillak garbi mantendu** horrela, potentzia berdinarekin argitasun gehiago edukiko duzu.
3. **Paretak eta sabaiak kolore argiz margotu**, argi naturala hobeto aprobetxatzeko eta argi artifizialaren erabilpena murrizteko balioko dizu.
4. **Zuzendutako argiztapena** erabiltzen saiatu, batez ere zenbait **zeregin berezi egiteko**: janaria prestatu, irakurri, josi...
5. Argia denbora luzez piztuta egon behar diren geletan **hodi fluoreszenteak** erabili, adibidez sukaldean.



Adibidez, bonbilla konbentzionalak LED bonbilletatik aldatzeko aukerak:

